

HAUZA

HAN BADUK GAUZA

BAZTANGO LURRETAN

Nafarroako iparraldean kokatuta dagoen Baztan harana arraz ezaguna da bere paisaia barreiatuta dauden herri eta baserriengatik, baita duen klima atsegina, kultur-tradizio eta folklore, gastronomia preziatu eta nola ez, bertan bizi eta lan egiten duen jende xaloagatik. Haraneko ibilbidea osotasunean egiteko bide aunitz daude, naturaren espazio eta baserri inguruetan barna, xoko, herri eta auzoak ezagutzeko aukera ezin hobea izanik. Ibilbidean zehar, oraindik ere, iratze edo belar metak eta laxoa edo paxaka partidu bat (euskal pilotaren antzinako modalitateak) ikusteko aukera izan dezakegu. Bertako jaki tipikoetan, berriz, txuri ta beltz, Baztan zopak, gaztanbera eta hain ezaguna den Elizondoko hurrekin egindako txokolatea dastatzeko aukera balia dezakegu.

BAZTAN HARANA

Urdazubiko lezeetan aurkituriko Goi Paleolitoko hondar arkeologikoen eta inguruan anitzak diren monumentu megalitikoek erakusten duten bezala, Historiaurretik hona, eskualde honetan gizakia bizi izan da. Geroztik, harana ez zen apenas erromanizatu eta arabiarrentzat nahiko arrotza izan zen, Pirinioetako erreinua osatu artio bere independentzia mantendu zuelarik. 1522an, Amaiurko gazteluan Albreteko Enrike II.aren aldekoek tinko eutsi zieten anitzez ere ugariagoak ziren eta hobeki prestatuak zeuden Gaztelako tropei. Hau izan zen Nafarroako Erresumaren independentziaren akabaila.

Baztandarren Biltzarra bestak, milaka baztandar eta bisitari euskaltzale biltzen ditu

Egun, Baztango harana ia zortzi mila biztanle osatzen du, 376 km koadrotan hedaturik. Nafarroako eskualderik handiena den hau, 15 herriek osatzen du eta Elizondo da herriburua, antolakuntza administratibo eta politikoa Batzar Orokorren esku dagoelarik. Aipatutako herriak 4 koartelatan banatzen dira: Basaburua (Almendoz, Berroeta, Aniz eta Ziga), Erbera (Oronoz, Arraioz, Irurita eta Gartzain), Elizondo (Lekaroz, Elizondo eta Elbete) eta Baztangoia (Arizkun, Erratzu, Azpilkueta eta Amaiur).

Tradizioz, nekazaritza eta abeltzaintza izan dira Baztango ekonomiaren oinarri eta sostengu, esplotazio familiarak bazter guztietan ikus zitezkeelarik. Egun, nekazaritza sektorea zailtasun handiak bizitzen ari da eta turismoa bihurtu da diru-iturri nagusienetariko bat; horren erakusle, jatetxeak, ostatuak eta abentura nahiz aisialdirako dagoen eskaintza zabala.

Uztailean, Santio aitzineko igandean ospatzen den Baztandarren Biltzarra bestak, milaka baztandar eta bisitari euskaltzale biltzen ditu urtero Elizondoko karriketan. Bestaren ekitaldi nagusia desfilea izaten da, bertan, herri bakoitzak ilusio handiz prestatutako orgak kaleratzen direlarik: garai bateko ohiturak, herrietako historiak, aldarrikapenak... dena musika eta dantzaz lagunduta. Ondotik, bestan segi nahi duenarentzat 1500 lagun inguru biltzen dituen herri-bazkaria izan ohi da; zinez, gure eskualdeko folklore aberats eta goxoaz gozatzeko aukera ezin hobea da egun hau.

Bertzalde, denbora batean harana zuhaitzez beteriko oihanez osatua egon bazen ere, kontrolik gabeko mozketak egin dira. Hala eta guztiz ere, azaleraren %45a zuhaitz anitz eta osasuntsuz beteta dagoela erran daiteke. Pago eta haritzak nagusitzen dira eta neurri txikiagoan, gaztainondoak, hurritzak, lizarrak, gorostiak, zumarrak, urkiak eta koniferoak, azken hauek landaketa berriko eremuetara mugatzen direlarik, erraterako Otsondoko mendatera.

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Jaime Biguria Huarte.
(Elizondo, 1970).

Lanbidez informatikaria den baztandarrak, Baztango Erleak eta Baztango Mengoizaleak mendizale taldeekin, antolatzen diren mendi ibilaldietan gozatzen du Baztan eta Bidasoaldeko mendietan, eta noizbehinka, Nafarroa eta Aragoi aldeko Pirinioetan.

HAUZA MENDIAREN ERREINUAN

ARIZKUN-BASABAR

Gure ibilaldia, udazkeneko goiz hotz eta goibelduan abiatu dugu. Goizeko 8etan, Arizkungo plazatik (280 m) atera eta Txuputo karrika gurutzatzen dugun bitartean, herriak eskaintzen dituen eraikinetariko bi ikusi ditugu: Joan Bautista Deunaren eliza barrokoa eta Klarisen moja komentua. Malda akabailan, Pedro Zapata artisauaren forja lantegi eta erakusketa-denda dago. Eskuinalderantz, zementaturiko San Kristobaleko bidea hartu, eta oihan ospeletik igaro ditugu hurrengo metroak, Peralats auzoan Errazuriz baserria ikusi dugun artio.

Maldan goiti eginez haritz bakartiak gibelean utzi ditugu

Haritz eta pago gazteen artetik toki argitsuagora ailegatu gara; nahiz eta behe lainoak Baztangoiza kuartela (Amaiur, Azpilkueta, Erratzu eta Arizkun) behar bezala ikusten ez utzi, hortxe dugu Alkurruntz (934 m) non gauden garbi erakutsiz. Pistari segituz, iratze meta artetik Ezkerreta (540 m, 50') parajera iritsi gara. Laino artean eta jarrera ezkibelean, mendebalderantz Abartan, Belate

aldea eta Mendaur mendi zorrotza ikuskatu ditugu eta iparralderantz, berriz, Gorramendiko katea eta gaur hegoaldetik igo nahi dugun Hauza mendi ederra.

Iratze artean dagoen xenda hartu dugu. Maldan goiti eginez eta haritz bakartiak gibelean utziz, bat-batean pago multzo koskorra agertu zaigu, tartean, eroritako ardi borda bat dagoelarik. Hau, "Nabil" parajea omen. Ezker aldean haitzak utzita eta alanbrez egindako hesiaren ondotik, Otxasko muino laura igo gara (719 m, 1or 15'). Bertatik ederki ageri da Iñarbegitik Gorostapolora jaisteko bideetariko bat, Zipunten bordatik pasatzen dena. Erra-

Ezker-eskuin: Betarteko Harriak eta Alkurruntz, Otsondotik. Urrunean Saioa mendia ageri da.





Minetako zokoa (Iñarbegi, Erratzu).

tzuriz borda ondoko lepora jaitsi, eta Soalar ezker aldean utziz, alantzearen hesiarekin topo egin dugu, baita gainera pasatu ere, gisa honetan lur komunalean sartu garelarik (Baztango luraren %84 komunala da). Ahal bezain asots gutien egiten saiatu gara, hantxe baitzebilten piriniar arrazako behi andana, marru-marru jaten. Berehala Idilepora ailegatu gara eta hegoaldera segituz, Burgako oiha-nean sartu gara, tartean izen bereko tontorra eginez (872 m, 2 or). Berriz ere lainoa lagun,

ezin dugu Beartzun auzoa eta Oiza eta Irlintzi parajeak baino haratago ikusi.

Oihan horretan aspaldiko burdinolaren arrastoa bada oraindik ere

Pagadi ondotik doan bide-xendatik beheiti abiatu gara, eta ordu erdi eskasean Basabar (688 m) lepora ailegatu gara. Hauxe dugu

gure ibilbidearen bihotza, eta hortaz, hemenxe gosaltzea erabaki dugu. Bidegurutze garrantzitsua dugu Basabar lepoa, Beartzun eta Iñarbegi lotzen dituen pista, eta oinez egiteko balizaturiko hainbertze bide hemendik pasatzen baitira. Bide horietaz eta inguruan dauden hainbat megalitoz informatzen dute bertan dauden panelek. Ez urrun, Lamizilo eta Errolan trikuharriak, eta izen bereko hainbat harrespil edo mairu-baratza ditugu, baita tumuluak ere.



BASABAR-HAUZA

Ederki gosaldu ondotik, eta arestian aipatu-tako pistatik ekialdera eginez, Iñarbegi aldera abiatu gara, tartean haritzak, gaztainondoak, pagoak, urritzak eta gorosti bat edo bertze ikusi ditugularik. Bidetik ageri ez bada ere, jakin badakigu oihan horretan aspaldiko burdinolaren arrastoa badela oraindik ere, Muinauz trikuharritik hurbil; hortik dakioke zenbaitzuk erabiltzen duten "Minetako zokoa" izena. Gain-gainean dauden Burga, Argaineta eta

Hauza mendiek Iñarbegiko auzoa babesten dute, sehaska forma emanez, zeinean mendiek pareta osatzen baitute eta auzoak berriz ohantzea. Bati baino gehiagori aditu diogu Iñarbegiko "zirkoaz" mintzatzen. Hainbat baserri ditugu aitzinean: Ixurren, Senperene, Dorre, Otondo...

Iñarbegiko erreka gurutzatuta, gaur egungo asfaltera ailegatu gara; beharrik metro guti ditugula brea beltza zapaltzeko! Dorreko borda ondotik pasatu eta hartan, Mazako maldari begira gelditu gara, hau baita gure indarrak neurtuko dituen patarra. Lepiñer parajea gaude. Abiapuntua Sorginetxo trikuharria da

(570 m, 3 or 10'), ederki seinalatua eta bortz minutuko geldiuena eskatzen duena. Mazako maldak gogorak Maxilgo Harrira (992 m.) eramanez gaitu, hasmentan iratze eta ote artetik eta hondarrean tokiko haritz eta harkaitzen artetik. Maxilgo harriaren ondoan Maxilgo etxola (975 m, 4 or. 10') ikusiko dugu. Hau ere, geldialdi tiki bat egiteko toki aproposa da, halako maldak igo ondotik, pixka bat pausatzeko bederen. Garai batean, harlauza ateratzeko, harrobia zegoen hemen eta oraindik ere, Iñarbegitik zetorren pistaren arrastoak gelditzen dira. Aitzinean ditugu Mazako zelaiak, Erregarri kaskoa eta Hauzako tontorra.

Bergarako auzoa (Arizkun).



Eguneko erronkarik Gogorrena eta zailena: harkaitzez osatutako pareta

Deskantsuan mokadu ttipia ahora sartu ondotik, aipatutako zelai faltsua pasatu dugu; Doi-doi nabari den Ekaitza (1066 m) ezkerreko aldean utzi eta Erregarri (1136 m) tontor zorroztz aldera abiatu gara, tartean artalde ederraz gozatzeko aukera izan dugularik. Ezker aldetik doa xenda, alde batean Erregarriko harkaitzak eta bertzean aspaldiko pagadia dituela. Hemen hasiko da eguneko erronkarik gogorrena eta zailena: harkaitzez osatutako pareta, tarteka har-multzoz markatua, erne ibiltzea eskatzen duena. Patar ikaragarria, izutzen duen horietakoa. Orain dela hilabete batzuk, putre edo sai hil berria aurkitu genuen hemen, hegalak zabal-zabalik zituela.

Hamar minutu bertzerik ez zaizkigu falta tontorrera ailegatzeko; harkaitzen artetik eta norbaitek zutitutako harlauzen artetik pasatu gara. Aski kontent gaude eta zutoi geodesikoa ukitzearekin bat, bi eibartar hurbildu zaizkigu eta uneak merezi duenez, talde-argazkia egin digute. Berriz ere jateko eta edateko aprobetxatzen dugun bitartean, ikuspegiak gozatu dugu: euskal kostaldea, Nafarroa eta Aragoiko Auñamendiak, Baztan-Bidasoa eskualdeko zati ederra...


HAUZA-ARIZKUN

Beheti abiatzeko tenorea ailegatu eta "Astobizkar" deituriko maldan abiatu gara; hara non, zeruian urdin gune batzuk agertzen zaizkigun

eguzki izpiren bat edo bertzek lagunduta. Urrunean, Erratzu eta Gorostapolo, gure zain, esperoan... Zanpa-zanpa ordu batez gain-behera segituz, lur gorritzko pista iritsi eta ezker aldera hartu dugu, ur depositura ailegatu artio. Berriz ere Iñarbegira doan asfaltozko pista ukitu eta gurutzatu egin dugu, Hauzako borda aldera joateko. Bi papogorri kantari entzun ditugu, jakitera zertan ari ote diren! Akaso bakoitza oihaneko bere zatia sendotzen?

Gorostapolo, baztandar aunitzen iritziz bailarako auzo xarmantenetarikoa

Orain arte izandako lasaitasuna Xorroxin ur jauzira doazen familiek hausten dute, bidenabar haurrek gaztainak biltzen dituztelarik. Gure bidetik kanpo egon arren, ur-purustadara hurbiltzea erabaki dugu (7 or. 45'), gure zango zolek hango putzu hotza atsegin baitute. Inguru hauetan sortzen da Baztan ibaia, geroxeago, Oronoz-Mugairen, Bidasoa izena hartzen duena. Berrituta, zangoak bederen, eta galtzada tarteko, Gorostapolora iritsi gara (8 or. 15'), baztandar aunitzen iritziz bailarako auzo xarmantenetariko bat dena. Zolako galtzada, Dolarea etxea bere lore eta zura apainduekin, Bikondoa bere harri gorritzko "truñe"-kin (tribuna edo eskailera-buru), lehendabizikoz ikusi izan bagenitu bezala, hantxe egon gara haiei begira, zozotuak... Segi ezean ez gara inoiz ailegatuko eta hortaz, mendebaldera doan pista hartu dugu, laster xenda bihurtuko




Beheti abiatzeko tenorea ailegatu eta "Astobizkar" deituriko maldan abiatu gara. Urrunean, Gorostapolo eta Erratzu.





Oronoz-Mugaire, udazkenean.



dena. Iratze-zelai ederra gurutzatu dugu eta azkenik, harizti txiki baten gibeletik, hasieran ikusitako Erratzuriz baserrian agertu gara. Hortik, hasmentako bide beretik, Arizkungo plazara iritsi gara, hain xuxen, elizako ezkilak arratsaldeko bortzak jotzen ari diren

momentuan. Ingelesendako tea hartzeko tenorea omen da, baino guk, eguna familia giroan behar bezala akitzeko, nahiago ditugu sagardo freskoa eta txistorra, xingarra eta gasnaz betetako arto-irinezko Amaiurko errotako talo goxoak. On dagizuela!!!!

“HAUZA, HAN BADUK GAUZA”

» Nahiz eta Baztango mendi altuena ez izan -Saioako kaskoak gainditu egiten du-, bere itxura eta eiteagatik aise erraten ahal da Hauza haraneko gailurrik nabarmenena dela. Erratzuko herritik 1.000 m-ko malda bada ton-torra arte. Neguko egun garbi batean Aragoiko Pirinioetako hain urrun dagon Petretxema menditik, Hauza ikusteko aukera izan dugu.

» 1913ko ekainaren 2an izugarritzko lainoa lehortu zen Hauzako kaskoan eta honek Baztaren inoiz eman den uholderik beldurgarriena ekarri zuen. Bere hurbiltasunagatik, Erratzuko herriak hartu zituen kalterik handienak.

» Hauzako mendi-hegalek zabalera eta sakontasun gutxiko mendebaldeko Pirinioetako hondar glaziarrak babestu zuten. Gaurko egunean, aldiz, kalitate ezin hobeko belaiak ageri dira.



Iruritako "ezkerreko erreka", azaroko elurte goiz batean...



Maiatzan ospatzen diren Irurritako "Salbatore" bestak, Baztango lehenbizikoak izaten dira.

Tokiko nekazariak erraten duten bezala Hauzan bazkatu duen aziendak ez du bertze inon bazkatu nahi.

» Hauzaren bertze berezitasunetariko bat kaskoan baden laja edo harri zuti andana da. Nahiz eta antza misteriotso bat eman ohitura hau berez berria da (30-35 bat urte ditu), men-

digozaileak aisialdi gisa harriak paratzen hasi zirenean, han hemenka...

» Mendi xarmant honen inguruan istorio eta kondaira anitz sortu dira mugaren bi alderdietan. Erraterako, mendi tontorrean urrea bazela, suge eta ahuntz batek altxatua. Aldudeko apez bat saiatu omen zen urre hori harrapa-

tzen, baina alferrik! Apeza erreztatzen hasten zelarik sugea txikitu egiten zen eta urrea ukitutuz bezala sugea handitu egiten zen. Hortik heldu omen da "Hauza, han baduk gauza, baina inork ezin har..." erranairua.

INFORMAZIO OROKORRA

DATUAK

Luzera: 23,1 km

Iraupena: 9 ordu (geldialdiak eta bisitak barne)

Desnibela: 1715 m

Gehienezko altuera: 1305 m

Gutxienezko altuera: 280 m

BAZTANGO BIDEAK

Bailaran zehar dagoen bide sarearen tipologia eta mantenimenduaren egoera, arras ezberdina da:

GR BIDEAK (IBILBIDE LUZEA): GR11 (Pirinioetako Bidea), GR12 (Euskal Herriko Bidea), eta GRT Kulunka (GR11 eta GR10 arteko lotura Hauza eta Izpegitik), harana eremu garaienetatik gurtzatzen dute eta Elizondo ere zeharkatzen da. Nafarroako Mendi Federazioa, bide hauetaz arduratzen da. Mantenimendu eta seinalizazioari dagokienez, egoera ezin hobean daude.

TOKIKO BIDEAK (SL) ETA IBILBIDE TTIPIAK (PR): 15 bide daude eta 125 km-ko ibilbidea guztira, herri, haran, baso, monumentu megalitiko... ezberdinetatik pasatuz. 2007an martxan jarri zen sarea eta Baztango Udala mantenimenduaz arduratzen da. Eredu batzuetan seinalizazio eta mantenimendu arazoak daude, bideak jarraitu ahal izateko. Balio handiko sarea da eta mendizale aunitz pasatzen da.

BAZTANGO DONEJAKUE BIDEA: Norabide bakarreko bidea, gezi horiekin. Harana iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du (Urdazubitik Belatera) eta herri aunitzetatik igarotzen da. Donejakue Bideko Lagunen Elkarteak, seinalizazioaren mantenimendu lanez arduratzen da. Ibilbidean zehar, zizelkatutako losak, iturriak eta eraberrituriko baselizak daudelarik. Bide erraza, etapaka egin daitekeelarik.

WEB GUNEAK

www.valledebaztan.com

www.baztan-bidasoa.com

www.baztan.eus

www.baztangomendigoizaleak.org

www.misescapadapornavarra.com

www.rutasnavarra.com

BIBLIOGRAFIA

Rutas montaÑeras: Baztan 1. C.D. Navarra, 1974.

Rutas montaÑeras: Baztan 2. C.D. Navarra, 1974.

Baztan-Bidasoa. Javier Rey, Txema Iriarte. EGN, 2012.

Caminatas en Baztan y Baigorri. Pedro López, 2006.

Elizondo-Baztan-Xareta. Hektor Ortega. Sua, 2013.

P.R. Baztan-Pirineo Vasco. Federación Navarra de Montaña. Sua, 1992.

KARTOGRAFIA

Baztan (libro+mapa GPS). Miguel Angulo/Mikel Albuja. Sua, 2007.

Valle de Baztan. Mapas Pirenaicos. Miguel Angulo/Gorka Lopez. Sua, 2014.

Aldudes-Baztan, Pirineos Atlánticos. Editorial Alpina.

ESKERRAK

Esker mila aunitz parte hartu duzuen guztiei, ibilaldia osatu zuen taldean nola testuen erredakzioan eta argazkiekin eskaini duzuen laguntzarengatik: Ángel Mendiburu, Óscar Vertiz, Nekane Orbegozo, Kris Huarte, Sergio Salaburu, Amaia Olondriz, Julián Olaizola, Mitxel Etxenike, Elisa Almandoz, Juan Goñi, eta bereziki, Joxemi Pardo, Ixabel Aleman, Raket Etxabarri eta Edurne Biguriari.

WEB

Información referente al Valle de Lana <http://www.valledelana.com/>.

Información referente a Las Améscoas

<http://www.amescoa.com/>

<http://www.mendikat.net/>

CARTOGRAFÍA

IBERPIX. <http://www.ign.es/iberpix2/visor/>

Ortofotos y Cartografía del IGN (Instituto Geográfico Nacional) 1:25 000 hojas 139-IV, 140-I y 140-III.